



# Mendizabal anoetarrak lortu du I. Emakumea Pilotari Txapelketa

**EMAITZA** ▶ Anoetakoak  
eta Arrondok 30-27  
garaitu zituzten Jauregi  
eta Arozena lizartzarra

**KADETEAK** ▶ Maitane  
Aburuza zizurkildarrak  
gazteen mailakoa irabazi  
zuen Otxotorenarekin ▶ 6



Nagore Arozena, Garazi Jauregi, Eluska Arrondo eta Maider Mendizabal, atzo finala hasi baino lehen. HITZA



## Trikiti doinuekin eman diete hasiera ihoteei

**LEITZA** ▶ Atzo arratsaldean hasi ziren bi  
eskualdeetako lehenengo inauteriak; gaur,  
txaranga doinuak izango dira nagusi ▶ 4

TOLOSA ▶

## Txotx! antzerki taldea, eskenatokiz eskenatoki lanean

Hirukide eskolako ikasleek osatu  
zuten pasa den urtean taldea ▶ 7

Bizkar osoko  
saloa  
**180€**

Hanka osoak  
+ izterondoak  
**250€\***

Promozio  
**Berezia**  
1/15etik 2/15era

**FOTO**  
de pilazioa  
**Shuyana Edergintza**  
Eskolapioetako Lorategiak, 3 - 1A  
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

\*Balokiko prezioa gehienez 4 saiotarako kontratatuta

## IRUDIETAN ▶

Txerri festa  
Orexan 100  
biztanlegatikMADDI SOROA  
ARGAZKIAK: M. SOROA

Orexako herriak 100 biztanle-tik gora dituela ospatzeko txerri festa burutu zuten herritarrek atzo usadio zaharra jarraituz. Goizean txerria hil ondoren eta prestakizunetan murgildurik, bazkaria eta afaria egin zituzten herritarrek jai giroan.



Beteluko txerri gazteari San Martina iritsi zitzaion.



Ikusmira handia sortu zen herrian, txerria hiltzea, ordea, gizonen lana izan zen.

## UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

## Yren tristurak



**B**eLehenago batean, lagun batekin (dei diezaiozun X) hirugarren batez (Y) aritu nintzen hizketan. Izan ere Y "baju" xamar dabil, "trixte". Ondorio soziopsikologiko ugari atera genuen Xek eta biok (jendea gaizki dago: denbora dezente da depresioa modan ote

dagoen sentsazioa dudala), baina ez ditut horiek aipatu nahi. Atentzioa eman zidana nire galdera bati Xek emandako erantzuna izan zen, ea Yk triste egoteko egiazko motiborik ba ote zuen galdetu nionean, hark, "beno, triste egoteko badira beti aitzakia onak", erantzun baitzidan.

Martin (Hache)-ko elkarrizketa bat dakarkit gogora. Pelikulan, hamazazpi urteko gazte bat, Hache, ustez bere burua hiltzen saiatzen da. Haren aitak hamazazpi urteko gazte batek suizidatzen

saiatzeko arrazoiak edukitzea ulertezina dela esaten dio lagun bati, Danteri. Danteren erantzuna izugarria da: "Suizidatzeko mila motibo daude, are gehiago hamazazpi urte dituzunean. Baina horrek ez du inporta."

Beti dago triste egoteko arrazoirik, baina horrek ez du inporta: inguruko jendea hobeto ezagutu ahala, are eta egia handiagoa iruditzen zait hori. Gure montaña-rusa / komedia emozionalean kausa-efektu erregelek normalean ez dute balio, eta balio dutenean, alderan-

tzizko zentzuan izaten da askotan (hau da, kontua ez da arrazoi batzuegatik egoten garela baju, baizik eta baju gaudelako topatzen ditugula bajoiaen kausak). Horregatik, bajoien ustezko arrazoiak serioegi ez hartzen ikasi behar dugula uste dut; triste egotea pasatu beharreko zerbait dela onartu eta gure egoera emozionalak neurri handi batean aukeratu egiten ditugula ikasi. Beste alternatiba, gure bajoien kausak serio hartzea, modan dagoen aukera da, baina hori gure tristurekiko daukagun erresposabilitatea ukatzea da, biktima izateko predisposizio hutsa. Eta biktima izatea ez da pijokeria bat besterik, luxu hutsal bat.

## ASTEKO IRUDIA ▶



NOELIA LATABURU

## Eta azkenean iritsi da hainbeste itxaron dugun negua

**Erredakzioa** ▶ Iragerpenek esan bezala, asteazkenean iritsi zen elurra gurera. Egun horretan mendian eta herri txikietan egin zuen, baina hurrengo egunean gogotik bota zuen eskualde osoan. Ekaitzaren ondorioz errepedean batez ere hainbat arazo suertatu ziren, eta ikasle askok ezin izan zuten ikastetxera joan eta lanera joan ezi-

nik ere jende ugari geratu zen etxean. Horretaz gain, eskualdeko hainbat herrietan, Albizturren esaterako, ordu ugari egon ziren argirik gabe. Onurak ere utzi ditu elurrak, izan ere, zegoen ur falta asetzeko balio izan du. Eta, gainera ikuspegi zoragariak uzteaz gain, batez ere gazteek jolas egiteko ere aprobetxatu dute. N. LATABURU



Odolkietarako beharrezko odola.



Ohitura jarraituz, txerria erre ondoren, teila zatiekien garbitu zuten azaleko zikina.



Azken pausoa, txerria hustu eta zatiak gordetzea.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

ENERITZ MAIZ

**P**ablo Gorosabel, Tolosako kale Nagusiko 25ean jaio zen 1803ko urtarrilaren 16an. Aldiz, 1868ko urtarrilaren 23an, 65 urte bete berriak zituela hil zen Donostian. Historialari eta legelari ospetsua izatera iritsi zen eta liburu ugari idatzi zituen. Gehienak Tolosan bertan argitaratuak izan ziren.

Aita, Jose Joakin Gorosabel legazpiarra eta ama, Maria Isidra Dominguez madrildarra izan zituen. Oñatiko Unibertsitatean Legeak ikasi zituen eta batxilerga graduatua lortu zuen. Lizentziatura, berriz, Madrilera atera zuen. Tolosan aitarekin praktikak egin ostean, Madrilera joan zen. Haren lehendabiziko lanak nagusiki juridikoak izan ziren: *Redaccion del Codigo Civil de España, esparcido en los diferentes cuerpos de Derecho y Leyes sueltas de esta nacion, escrita bajo el metodo de los Codigos modernos* (1832) izan zen horietako bat.

Historialari, legelari eta artxibozain tolosarrak parte-hartze aktiboa izan zuen Gipuzkoako bizitza politikoa eta kulturean. Lehen Gerra Karlistan, oso gaztea izanagatik, ardura handiak izan zituen bere gain Tolosako alkate baitzen garai hartan. Hainbat urtetan Tolosako alkate izan zen eta Tolosako Barrutiko Probintzia Kontseiluko diputatu 1834. urtean. Bestalde, Gipuzkoako korrejidore izan zen 1835 eta 1840 urte artean eta Probintziako artxibozain eta Monumentu Historiko eta Artistikoen Probintzia Batzordeko kide 1858. urtean.

Ikerketa eta lan interesgarriak egin zituen. Espainiako legeriaz aritu zen eta Gipuzkoari buruzko ikerketa eta lanak egin zituen: *Bosquejo de las antigüedades de Tolosa*, 1853;

# Legelari eta historialaria

Asteartean bete ziren 139 urte Pablo Gorosabel tolosarra hil zenetik. Hainbat karguren artean Tolosako alkate izan zen



Bere izena daraman Tolosako kalean dago ipinita bere irudia. ENERITZ MAIZ

*Diccionario historico-geografico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldias y uniones de Guipuzcoa*, 1862; *Memoria sobre las guerras y tratados de Guipuzcoa con Inglaterra*, 1865, eta bere lanik nagusia 1868. urtean amaitutako *Noticia de las cosas memorables de Guipuzcoa* da. Artxiboetan datuak biltzen lau urte pasatu ondoren, lan maridula egin zuen. Gipuzkoako geografia, gizarte, legeria, ohitu-

rak, pertsonaia historikoak, erlijioa eta gertakizun historiko eta militar garrantzitsuak deskribatu zituen bertan.

**Bere eragina**

Jaioterriarekin lotura estua zuen eta Tolosa Gipuzkoako hiriburua izan zenean Pablo Gorosabelek eragina izan zuela ezin da ukatu. Bestalde, Gipuzkoako Aldundiaren izenean Foruak defendatu zituen eta Na-

zioarteko hitzarmenak lortu zituen Gipuzkoa eta Ingalaterra artean. Eta dudarik gabe, Tolosa eta Donostia trenaren bidez lotzeko proiektuaren bultzatzaileetako bat ere bera izan zen.

Ezagutu zuten artean oso gizon errespetatua izan zen bere zintotasun eta lanerako gogoarengatik. Guzti honengatik bai bere jaioterrian eta baita Donostian ere, kale bana du bere izen-abizenekin.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

Voith Gorostidi

Nola liteke etxe horietako zozketetarako 1.000 euroko soldata baldintza bezela jartzea? Jende asko dago 800-900 euro irabaziz bizi dena. Eta goi muga berriz ia 600.000 pezetetan jartzea... Hainbeste irabazten duenak baino behar handiagoa duela uste dut 1.000 euro irabazten dituenak!

Beti berdinek ateratzen diote etekina mugezinen negoziotan, herritarrentzako etekina zein da? Etxebizitza erostean egiten diguten lapurreta eskibatzea? 60-70 milioi ordaindu ordez 20 milioi ordaindu behar izatea bakarren batzuek? Edota 35 milioi ordaintzea tasatu bat hartuz? Ez gaitzatea egaina trimailuekin eta ez ditzatela dominak ipini beraien buruetan herritarrei kriston mesedea egin balie bezala!

JOXI ▶



- TOLOSA: 3 logela. Eraberrizteko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pza.
- TOLOSA: Zumalakarregi. 90m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 bainugela. Erabat berritua. Sukaldea jarrita. 65.000.000 pza.
- VILLABONA: Nagusia. Berritua. 32.000.000 pza.
- VILLABONA: Eraikuntza berrikoa. 49.900.000 pza.
- VILLABONA: Arroa. Erabat berritua. Bikaina.
- VILLABONA: Arroa. Pisu altua. Berritua. Ganbara badu. 47.500.000 pza.
- VILLABONA: Berogailua eta igogailua baditu. 43.000.000 pza.
- VILLABONA: 3 logela. Erdi-berritua. 41.200.000 pza.
- VILLABONA: 2 logela. Hormigoiez eraikia. Terraza. 36.000.000 pza.
- ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trastelekua. Terraza ederra dauka. Igogailua. 41.500.000 pza.

**Errota 3 - Villabona**  
Olatzinfo@euskalnet.net  
943 243 118 - 635 706 728

IHOTEAK ▶

# Karroza eta mozorroekin batera, trikitixa eta txistu doinuek alaitu dituzte kaleak

Elurrari eta hotzari aurre eginez, atzo arratsaldean hasi ziren Leitzako ihoteak; gaurkoan eta ondorengo bi egunetan ere izango da zer ikusirik herrian



Trikitilariak eta bistulariak etbez etxe ibili ziren atzo kalejiran, hauekin batera karrozaren bat ere bai. e.e.

## ESTI EZEIZA

Inauterietako mozorroak eta euskal ohiturak uztartu zituzten atzo Leitzako ihoteetan. Izan ere, pailazo, apaiz, txerri, nahiz gozokiz mozorrotuta ibili ziren kalejiran, trikitixa, txistu eta akordeoi doinuekin kaleak alaituz.

16:30ak aldera hasi ziren kalejiran, eta iluntzeko bederatzia arte luzatu zitzaizen festa. Atzokoan herri barruko etxeetan ibili ziren, baina bihar, inguruko baserrietara joango dira. Hala, bertakoez azaldu zuten, «baserrietara-eta joaten garenean jende gehiagok hartzen du parte, ohitura gehiago baitago».

Elurrari eta hotzari aurre eginez, jai giroa nagusi izango da gaur eta ondorengo bi egunetan. Orohar, karrozak kalera ateratzeko eguna gaurkoa bada ere, batzuk aurreratu

## EGITARAUA ▶

## GAUR

**12:00.** Abtaureak Incansables txaragaren eskutik; plazatik aterata. Karrozak berriz, industrildetik.  
**12:00.** Txu-txu trenaren herrian barrena ibiliko da.  
**14:30.** Abtauren herri bazkaria.  
**16:00.** Txu-txu trenaren herrian barrena ibiliko da.  
**18:00.** Incansables txaragarekin abtauren kalejira eskoletatik.  
**19:00.** Gau-Bela taldea karrapen.  
**23:30.** Gau-Bela taldea karrapen. Ondoren, Incansables txaragarekin herriko txokoak alaituko ditu.

## BIHAR

**09:00.** Baserrietako eskea. Gorritaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko bistulari eta Incansables txaragarekin.  
**16:00.** Txikientzako puzgarriak herriko Amazabal pilotalekuan.  
**19:00.** Gau-Bela taldea karrapen.  
**23:30.** Gau-Bela taldea karrapen. Ondoren txaranga.

egin ziren, eta atzo arratsaldean ere kaleetatik barrena ibili ziren txistulariekin eta trikitilariekin batera. Gauean berriz, musika izan zen nagusi.

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. Interesatuek deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

## ALOKAIRUA

**Pisua.** Lekunberrin 60m2-ko pisua. Egongela, bainugela, sukaldia eta bi logela. Telefono zenbakia: 679 20 14 60.

## LANA

**Gitarra-jolea.** Erromeri taldeak

gitarra-jolea behar du. Deitu 665 70 17 75ra.

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuek deitu 943 44 48 66ra.

**Harreragileak.** Erakunde publikoetarako harreragileak eta laguntzaileak behar dira. Interesatuek deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

## BESTERIK

**Zakurrak.** Bi hilabeteko arratoi zakurrak oparitzen ditut. Interesatuek deitu 645 70 68 21 telefono zenbakira.



## Aliprox

Elbarren, 71 • Tel.: 948 51 00 07  
Elbarren, 20 • Tel.: 948 61 06 57

LEITZA

## TORREA HERRIKOA

Asteartean BARRIKOTEA

Euskal preso eta iheslariak etxera!

Miguel Deuna, 1 - LEITZA  
Tel.: 948 61 09 09



## Ihote zoriontsuak opa dizkizue

LEITZAKO UDALAREN TELEFONOA

LEITZAKO UDALA

KULTURA ▶

# Kalean da Ero-Etxek Inauterietako grabatu duen disko berria

Txarangak hamasei abestirekin kaleratu duen diskoa, 10 euroren truke eskura daiteke dendetan eta tabernetan



Larrañaga, Leon, Bildarratz, Iturzaeta eta Arandia izan ziren diskoa aurkezten. ENERITZ MAIZ

ENERITZ MAIZ

Ostiral iluntzean, Tolosako Kultur Etxean aurkeztu zuten Ero-Etxe txarangak grabatu duen disko berria. Bertan, inauterietan hainbeste entzuten diren abestiak grabatu dituzte.

Ero-Etxeren 25. urteurrena zela eta 2004. urtean grabatu

zuten lehen diskoa Inauterietako hemeretzi abestirekin. Disko hura arrakastatsua izan zela ikusita eta oraindik beste abesti batzuk grabatu gabe geratu zirela kontuan izanik, txarangari omenaldia eginez beste disko bat grabatzera animatu dira elkartekoak. Lan hura borobiltzeko, oraingo disko ho-

netan beste hamasei abesti bildu dituzte.

Habanera eta kalejirak dira guztiak eta hauetatik bi abestuetak daude. Isitxo Larrañaga elkarteko kideak adierazi duenez «*Baila negra* eta *Ze politik diran 'trilingüe'*» abestiak dira Ero-Etxe abesbatzak abestu dituenak. Lehena, euskarara

itzulitako bertsioa da. Erraza da abesteko eta bai tolosarrek eta bai kanpotik etortzen direnek, abesti hau euskarazko bertsioan abestea gustatuko litzaziguke». Bigarrena, hiru hizkuntzetan abestua da: gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez».

Disko hau aurrera ateratzeko jende askok parte hartu du eta Ero-Etxe elkartekoek denak eskertu nahi izan dituzte. Azalaren ideia eta diseinuaz, Nestor Ardanaz eta Jon Gaztañaga arduratu dira. Musika, Andoingo Garate estudioetan grabatu dute eta nahasketa eta moldaketa guztiak Luis Mari Morenok *Pirata* egin ditu.

Izan dituzten gastuei aurre egiteko Tolosako Udalaren eta Ecania Bodegen diru laguntza jaso dute.

Denon eskura

Etxean, autoan, lanean... entzun nahi izanez gero, 10 euroren truke eskura daiteke Tolosako hainbat tabernetan edota Bilintx eta Zumbeltz dendetan. Gainera, inork nahi izanez gero, bi disko hauetan agertzen diren abesti guztien partituras, Tolosako Udalak duen web orriko jaiak atalean daude eskuragai.

Tolosarrentzat Inauteriak jai bereziak dira eta aurkezpenean gogorarazi zuten, «edozein herririk ez du hainbeste abesti eta hor ikusten da zer nolako indarra duten festa hauek». Ate joka ditugun Inauteri hauen giroan sartzen hasteko diskoa erosi eta entzutea bezalakorik ez dago.

GIZARTEA ▶

## Gelditzen ez diren trenak eztabaidagai

Tolosako apeaderoan gelditzen ez diren trenen inguruan, Udaletxeko Agenda 21ekoekin izan zuten bilera. Hau dela eta, honen berri herritarrei emateko beste bilerara batera deitu dute; datoren asteazkenean izango da bilera, hilaren 31ean, arratsaldeko 20:15ean.

GIZARTEA ▶

## Escolen Agenda 21 proiektuko gaiak aztergai

Herriko ikastetxe guztiek parte hartzen dute Eskolako Agenda 21 proiektuan, eta duela lau urtez geroztik lanean ari dira gai ezberdinak jorratuz. Gai bakoitzaren inguruan aztertutako guztia alkatari eta Udal Batzordeari igortzen diete, beharrak, iradokizunak eta eskaerak entzun ditzaten. Datorren asteartean, Tolosako Kultur Etxean 09:15etik 10:15era, azken lau urte hauetan jorratutako gaien berrikusketara egongo dute. Horretarako ikasleak, irakasleak eta proiektuan parte hartzen dutenak Jokin Bildarratz alkatearekin elkartuko dira gai hauek aztertzeko: mugikortasuna, haur parkea, bidegorria, hiribusa, Zumardi Handi-Zerkausia eta Sortzez Garbia plaza.

**GORRITZ**  
ERAIKUNTZAK • ESKABAZIOAK

- Etxegintza
- Kultur eta kirol azpiegiturak
- Abeltzaintzako azpiegiturak
- Etxe zaharren berritze lanak
- Mendietako pistak
- Ur hornidurak
- Saneamendu eta urbanizazioak
- Errepide moldaketak

**EXCAVACIONES Y CONSTRUCCIONES GORRITZ S.L.**  
Elgoien kalea, 2-1. • LEITZA  
Tel./faxa: 948 51 01 40

**ingeniaritza**  
**imh**

**IMH Ingeniaritza Eskola**

Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

ate irekiak  
otsailaren 3an  
goizeko 11:30ean  
... zator IMH Ingeniaritza Eskola ezagutzera

ikasten ala lanean?  
Ikasi eta gainera lan egiten dila!

zure txanda!

Informazioa:  
IMH INGENIARITZA ESCOLA  
Azkue Kalea, 1  
20670 EL GOIBAR, Gipuzkoa  
Tel. 949 744 132  
E-mail: ingeniaritza@imh.es  
www.imh.es

cesii

## PILOTA ▶

MADDI SOROA

Azpeitiako Izarraitz pilotalekua emakume pilotarien topagune bihurtu zen atzo, besteak beste, I. Emakumea Pilotari Txapelketa eta gazteen Gipuzkoako Elkartearen arteko Txapelketa-Kutxa Saria ospatu baitziren.

I. Emakumea Pilotari Txapelketa badu garailea. Pronostikoek ez dute hutsik egin, Maitener Mendizabal izan baita txapeladuna eta beste behin ere aurkaririk ez duela erakutsi du. Eluska Arrondorekin batera, 30 eta 27 garaitu zituen atzo jokaturiko finalean Nagore Arozena lizartzarra eta Garazi Jauregi bikotea.

Partidari erreparatu, aurretik ibili zen uneoro anoetarra, Arozena eta bikoteak, ordea, ondo egin zituzten lanak eta peloteo handiko partida izatera behartu zuten. Atzean asko jotako partida izanik, atzelariak maila handiko pilotariak direla erakutsi dute beste behin ere.

Gazteen mailako Gipuzkoako Elkartearen arteko Txapelketa-Kutxa Sariari dagokionez, Maitane Aburuza zizurkildarra izan zen garaile, Otxotorenarekin batera 18an utzi baitzituzten Lizeaga eta Pagola. Galtzen hasi arren zera adierazi du Aburuzak «uste baino errazago irabazi dugu, partida luzeagoa eta gogorragoa izatea espero baigenuen».

Txapelari dagokionez, pozik agertu da zizurkildarra «aurreneko aldia da txapelketa jokatzen dudana eta irabazi egin dugu, oso pozik nago horregatik». Zizurkildarrak Hernaniko taldearekin jokatzen du gure eskualdean ez baitago adin horretan palan jokatzen duen neskarik. Aurten jokatu du txapelketa lehen aldiz eta garaipena lortu du gainera. Ez da lan makala beraz neska honek egin duena.

Honenbestez, Emakumea Pilotari proiektua amaierara iritsi da, ez betiko ordea, antolatzailerak hasiak baitira hurrengo urteari begira prestaketa lanetan. Bitarte horretan, entrenatzen jarraituko dute nes-

# Maitener Mendizabal I. Emakumea Pilotari Txapelketako garailea

Gazteen mailan, Maitane Aburuza izan da Gipuzkoako Elkartearen arteko Txapelketa-Kutxa Sariko txapelduna



Maitane Aburuzak —eskuinetik hasita hirugarrena— 30 eta 18 irabazi zuen finala. UROLA KOSTAKO HITZA

ka pilotariak. Baita Tolosako ikastaroan parte hartzen ari diren emakumeek ere.

Argi geratu da emakumeak ederki dakitela palan jokatzen Txapelketan zehar maila handiko partidak burutu baitituzte.

## SAILKAPENA ▶

### NAGUSIAK

1. Arrondo-Mendizabal
2. Jauregi-Arozena

### GAZTEAK

1. Otxotorena-Aburuza
2. Lizeaga-Pagola



Maitane Aburuza partidaren une batean. UROLA KOSTAKO HITZA

## AZOKA ▶

### Elurraren eragina nabaritu da ohiko azokan

Berrikuntzen artean mendiola sagarrak eta marrubi landareak izan dira hautagai

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka egunean nabarmen ikusi zen elurraren eragina. Barazkien kasuan, asko hobetu dira guztiak. Elurrak, urtzen doanean ura uzten dio landareari, eta hori gutxi balitz, izotzaren aurka ere eragin onak dauzka. Landarearen gainean elur kapa lodia bat egoten da eta hauxe da izotzen dena, landarea zainduz.

Azaloreak, eskarolak, letxuak edota espinakak adibidez, oso itxura ona zuten, eta dirudienez ez dute kalterik sufritu elurra eta hotza dela eta. Berrikuntzei dagokionez, aurtengo lehenengo mendiola sagarrak ikusi genituen atzo, baita marrubi landareak ere.

Datorren asteari begira eta berrikuntzekin jarraituz, udare sagarrak egongo dira salgai.

## ATZOKO AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Azalea	5,00	8,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

### Bertako produktuak

Urta	2,00	3,00
Lekak	2,50	3,50
Erremolabxa	1,50	2,00
Txikoria	1,00	1,25

### Produktu ekologikoak

Arroza	1,90	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

### ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo




KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶

# Txotx! antzerki taldea, eskenatokiz eskenatoki

Bost gaztek osatzen dute Txotx! antzerki taldea; 'Beteluko balnearioko mirakulua' antzezlanara aurkeztu dute oraingoz



Beteluko balnearioko mirakulua antzezlaneko hiru aktore mutilak. HITZA



Inork bere herrian edota auzoan antzezten ikusi nahi badituzte, gogotsu daude Txotx antzerki taldekoak. HITZA



## ENERITZ MAIZ

**P**asa den urteko maiatzean, Hirukide eskolako kultur astea zela eta antzerki lan bat aurkezteko aukera eskaini zieten ikasleei. Eta aktore lanetarako, Ander Malbadi, Iñigo Peñagarikano, Maria Altuna, Olatz Godoy eta Joseba A. Maiza animatu ziren.

Bost gazte hauez gain, ikas-kide batzuk laguntzeko prest agertu zirenez, Maite Etxebarria irakasleak, *Beteluko balnearioko mirakulua* aukeratu zien antzezteko. Irakurri eta aurrera jarraitzea erabaki zuten, lanak banatu eta bakoitzaren pertsonaiak zehaztuz. Eguna iristean dena ondo irteteke, buru-belarri hasi ziren lanean. Beti ondoan izan dute irakasleak nahiz eta, batzuetan bere onetik ateratzen zutela adierazi diguten; «gugatik errieta batzuk jaso behar izan zituen klase ordu batzuk galtzen genituelako, baina oso gustura geratu da gure lanarekin eta asko lagundu digu. Ikastetxeak ere materiala utzi digu».

Hilabeteetan prestatzen ibilitako lana, lehenengo, batxilergoko ikasleei aurkeztu zieten eta ondoren, 4. mailako ikasleei, baina «bi aldiz aurkeztu ostean, penaz geratu ginen hainbeste lan egin eta dena hor bukatzen zela ikustean». Hasitako ibilbideak horrela ezin zuela bukatu konturatzean, eta denek jarraipena emateko gogoia edukita, beren buruak aurkeztuz Goierriko eta Villabonako eskolentara deitu zuten antzerkia egiteko aukera berrien bila eta baita lortu ere. «Orain arte egin ditugun antzezlan guztiak ahal izan ditugun lekuetan izan dira eta hasiera guztietan gertatzen den bezala, guk ibili behar dugu ate joka» gaineratu zituzten.

Azaroan, Azpeitian ospatzen den Euskal-Herriko antzerki topaketetan parte hartzeko aukera eman zieten eta ez zuten dudarik ere egin eta bertan izan ziren. «Esperientzia polita eta jendearen aldetik harrera ona izan genuen. Topaketa hauetan, esan digutenaren arabera, gustatzen bazaie txaloak eta bestela txistuak egiten dituzte; eta guk txaloak jaso genituen beraz, gustura». Horrez gain, «hurrengo urtean ere, 25. urteurrena dela eta, beste zerbait badugu bueltatu gaitezkeela esan ziguten eta horrelako hitzek animatu eta aurrera segitzeko indarra ematen digute». Orokorrean, han eta hemen, ikusleek emandako iritzi eta kritikak jaso dituzte eta oso gustura daude taldeki-deak ikusleengandik jasotako-arekin «gertukoia eta erraz ikustekoa dela esan digute». Urte askotako esperientzia baltute bezala mugitzen dira taula gainean eta inprobisatzea ere asko gustatzen zaie («oso eroso sentitzen gara eta gure artean, antzerkia egiten eta prestatzen oso ondo pasatzen dugu»).

## Aurrera begira lanean

Hasteko taldeari izen bat jarri behar eta izen sorta baten artean Txotx! aukeratu zuten. «Asko pentsatu gabe erabakitako zerbait izan zen baina denoi gustatu zitzaigun; izen motza eta era berean, erraz gelditzekoa delako».

Taldeakide batzuk jada, unibertsitate ikasketak hasi dituzte eta beste batzuk asteburuetan lana egiten dutenez, ez dute egun finkorik entseguak egiteko, baina beti saiatzen dira elkartzeko eta gehienez, ostiraletan elkartzeko dira. Gazte hauek, lanari ez die beldurrik eta jada beste antzerki lan baterako gidioa prestatzen hasiak dira. Elkartzeko egun eta ordurik ez izateak asko luzatzen du egin beharrekoa baina «aurtengo Azpeitiako topaketetarako prestatzea nahi genuke. Ia urtebete aurretik dugunez, badugu denbora, gidioa bukatu eta dena prestatzeko. Bitartean, *Beteluko balnearioko mirakulua* lana aurkeztzen jarraituko dugu».

Inork bere herri, auzo, elkarre edota eskolan ikusi nahi izanez gero, gazte hauek lanerako gogoz daude («afari baten truke edota gabe bada ere, berdina zaigu. Gustura egiten dugun zerbait da eta garrantzitsuen leku ezberdinetan aurkezteko aukera izatea da»). Deitu lasai, 669 192480 (Joseba) edo 605 704305 (Maria) telefonotara eta gustura jasoko dute zuen gonbitaren berri Txotx! antzerki taldeko kideak.



**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

Txoooooobit! Tolosaldeko sagardo dastatzaile onenari zorionak, lankideen partetik!



**URTE ASKOAN**

Jokin. Nahiz ez dakidan ongi/asko edo gubi dan/ hirugarren urtea/ sartu dut motxilan.



**URTE ASKOAN**

Aiora Beloki (Bedaio). Gaur 5 urte. Rubita honi bere anai eta gurasoen partetik.



**URTE ASKOAN**

Eguzki Azkarate (Belauntza). Bihar 6 urte. Zorionak etbekeen partetik.



**URTE ASKOAN**

Joanes. Urtebete, ze haundie! Zure lehengusu Oinatzek ta bere famili.



**URTE ASKOAN**

Asier Etxaniz (Villabona). Zorionak etbekeen partetik.



**URTE ASKOAN**

Asier Etxaniz (Villabona). Gaur 29 urte. Gaurko opannik onena, 3 puntuak batzea ez? Aupa Reala!



**URTE ASKOAN**

Aitziber (Tolosa). Zorionak eta 3 muxu handi Olatzek, aitabok eta amabok.



**URTE ASKOAN**

Maddi Gabellanes (Irura). Bihar 10 urte. Zorionak eta muxu bat familaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker. Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
 agurren tartea

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Pello Odriozola abilotu zutenetik 19 urte betetzen dira, eta hori dela eta manifestaziora deitu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, 19:00etan Triangulotik abiatuta.

**Tolosa.** Aurreko urteetan bezala, datorren asteartean, Triangulo plazan elkartuko dira Hirukideko kide guztiak aurreko astean zehar burutu duten Bake Asteari amaiera emateko. 12:00etan izango da eta tolosar guztiak animatzen dituzte.

**Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete Aranburu jauregian.

**Tolosa.** Bihar, 11:30ean, Tolosako Inmakulada ikastetxeak, Farmazi eta Erizaintzako ikasleen laguntzarekin, organu eta odol emaleei buruzko ekitaldia burutuko du. **Zuzurkil.** Loatzo Musika eskolak txalaparta ikastaro bat antolatu du 12 urtetik aurrerakoentzat. **Interesatuek 10:00etatik 16:00etara Zuzurkilgo bulegoan (Bulandegi bidea, 23 behea) edo 943 692619 zenbakian eman dezakete izena.**

**Tolosaldea.** Tolosaldeko Korrika batzordearen bilera izango da datorren asteazkenean, hilaren

31ean, Lizardi gainean (lehen AEK zena), 19:30ean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian.

**Tolosa.** Emakumeen aurkako indarkeriarik ez izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.

**Alegia.** Isabel Mujika tolosarraren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Happy feet gaztetxoentzako filma izango da ikusgai, 17:00etan.

**Tolosa.** Derecho de familia filma eskainiko dute Leidor aretoan. Gaur, 19:30ean, eta bihar 20:30ean ikusteko aukera izango da.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leiza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

**Bihar**

**Lekumberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Betiko janaria**  
**beste modu batera**  
 eta erraz prestatzeko

liburua  
**DOAN!**

**berria**

Otsailak 3, larunbata,  
 kartilla + 1. kupoia  
**berria** rekin

1. - ZURE KARTILLA EKURATU  
 2. - KUPOIAK ITSATSU  
 3. - KARTILLA OSATZEAN, KIOSKORA ERAMAN eta DOAN jasoko duzu liburua.

Babeslea  
 Gipuzkoako Foru Aldundia

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**